

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

## 1. Bazkideak

Gure enpresa bost bazkidez osatutakoa izango da, bakoitzak jarduera jakin bat egingo du, eta enpresaren arrakasta handia bada, jende gehiago kontratatuko dugu, bezeroak merezi duen tratua jaso dezan. Gainera, lanak banatuta edukitzeak gure enpresa antolatuta edukitzea ahalbidetzen digu. Enpresa barruan bakoitza honetara dedikatuko da:

- Kontabilitateaz losu arduratuko da. Enpresako diru sarreretatik eta ekonomikoki arazoak ez ditzagun eduki arduratuko da.
- Erlazio publikoek irati arduratuko da. Pertsonaren bat gure enpresak emango dituen zerbitzuren batean interesatua badago, gure enpresaren nondik norakoak kontatuko dizkio.
- Marketing-az Maialen arduratuko da. Gure enpresa hedatzeaz arduratuko da, sare-sozialez arduratuz.
- Zerbitzuen arduraduna Xabat izango da. Gure bezeroekin zuzeneko lana egingo du, hau da, bera arduratuko da: negoziazioez, laguntza administratibo eta legalez, eta beraien managerra izatez. Beti ere, enpresako bazkide guztien laguntzaz.
- Idazkaria Jone izango da. Enpresaren nondik norakoak emango ditu. Hau da, materialen faltaren bat badago hura lortzeaz, administratiboki dena legearen barruan egotea eta gure artean hitz egindako guztia idatziko du, ondoren arazorik gerta ez dadin.

## 2. Kanpo enpresekin harremanak

Beste alde batetik, gure enpresa mundu honetara dedikatuz, garrantzitsua iruditzen zaigu beste enpresa batzuekin harremanak/aliantzak edukitzea. Hasteko, *Youplanet group-ekin* egin nahi dugu gure lehen ituna. *Youplanet* influencer, marketing eta eduki digitaleko ekoizle agentzia bat da. Marka- eta entretenimendu-edukiak sortzen dituzte talentu digitalen bidez, eta sormen-prozesuan integratzen dituzte, ekintza eraginkorrak eta egiazko harremanak eraikitzeko.

Itun honek gure enpresa hedatzeaz gain, merkatuan sartzeko metodo oso eraginkorra iruditzen zaigu.



Munduan zehar, gure antzeko proiektuak daudela ikusi dugu, adibidez, Prodigy Agency proiektua. Jokalari gazte ezezagunekin lan egiten dute eta manager lanean laguntzen die jokalari hauei.

